


### 3. GAIA . INKESTA-DISEINUA

#### Sarrera

Metodologiako testu eta eskuliburu gehienetan inkesta hitza kontzeptualizatzeko bi modu eskaintzen dira:

a) Alde batetik, inkestaz hitz egiten da datuak jasotzeko tresna bezala. Kasu honetan galdesorta edo elkarrizketaren sinonimoa izango litzateke.



b) Bestalde, inkesta ikerketarako estrategia kontsideratzen da. Bigarren adiera honetan ikerketaren prozesu osoa inplikatzen du eta problema, helburuak eta prozeduraren inguruko erabakiei erantzun egokia eman behar die fase bakoitzean.

Bereziki, inkesta-metodoa metodo selektiboaren prozedura orokorra aplikatzeko estrategia zehatz gisa uler daiteke. Metodo ez-esperimental da eta bere ezaugarri nagusia da informazioa jasotzen dela ikertzailearen inolako manipulazio edo esku-hartzerik gabe, horretarako parte-hartzaile guztientzako erabilgarriak diren neurketa/behaketa tresna egokiak eta estandarizatuak erabiliz, datuen konparagarritasuna bermatua geratzen delarik.

Inkesta bidezko ikerketa-metodologiak ikertzaileak *parte-hartzaileen taldean* zuzen-zuzenean behatzerik ez duen fenomenoari buruzko *informazioa biltzeko* prozedura adierazten du, fenomeno horiek subjektiboak direlako edo behatzeko zailak edo ezinezkoak direlako; *ikertzaileak dituen informazio beharrei* erantzuteko *galdera multzo mugatuak* erabiliz lortzen da pertsonen informazioa, pertsona horien ezaugarriak deskribatzeko, edo pertsona horien zenbait ezaugarriren arteko erlazioak aztertu ahal izateko.

*Informazioa biltzeko prozedurak:* Beharrezko informazioa lortzeko galdera multzoa barne hartzen duen inkesta-tresna edo tresnen eraikuntzari egiten dio erreferentzia, eta baita informazioaren bilketarako eta tratamendurako beharrezko ekintza multzoari ere.

*Parte-hartzaileen taldea:* Populazio jakin bati egiten dio erreferentzia, normalean pertsonak isolatuki kontuan hartuz, baina zenbaitetan inkestaren oinarritzko unitateak pertsona-taldeak edo beste izaerako erakundeak ere izan daitezke.

*Galdera multzo mugatua:* Honekin azpimarratu nahi da askotan fenomeno baten inguruko informazioa jasotzeko hainbat galdera egin daitezkeen arren, ikertzaileak guzti horien artean multzo mugatu eta zehatza aukeratzeko duela, arrazoi desberdinengatik: denbora mugak, pribatutasun kontuak, konfidentzialtasuna, legezketasuna,... Galdera horiek neurtu nahi den fenomenoaren adierazgarria izan nahi duen informazio partziala ematen dute.

*Ikertzailearen informazio beharrak:* Fenomeno bat ezagutzeko behar diren datu-multzoarekin bat egiten dute, bai erabaki zehatzak hartzeko helburuarekin edo baita fenomeno zehatz baten funtzionamenduaren mekanismoari buruzko teoria edo ideia multzo bat baztertu edo berresteko ebidentzia pilatzeko helburuarekin ere.

Fowlerren arabera (1993), inkestek izan behar dituzten ezaugarriak ondokoak dira:

- Ikertzailearen aldetik manipulazio edo esku-hartzerik eza.
- Haien helburua datu kuantitatiboen multzoa jasotzea da, datu horiek estatistikoen bitartez laburbilduz. Era berean, datu horietan oinarritutako proposamenak egin daitezke, aztertzen ari garen populazioaren zenbait alderdi deskribatzeko.
- Informazioa jasotzeko modu nagusia pertsonari egindako galderak dira, haien erantzunak izanik analisi estatistikorako datuak.
- Informazioa orokorrean bere adierazgarria den populazioaren den zati batean jasotzen da, lagina deiturikoan, eta laginaren elementuak laginketa diseinu probabilistikoren bat erabiliz erabakitzen dira.

Laburbilduz, inkesta metodologiaren erabilpena egokia izaten da ikerketaren helburu nagusia populazio baten ezaugarriak aztertu eta ezaugarri horien arteko erlazioak ikertu nahi direnean, ezaugarri horien behaketa oso zaila denean edo asko kostatzen denean, adibidez, iraganeko portaerak, jarrerak, iritziak, motibazioak edo sentimenduak bezalako ezaugarrietan. Izan ere, lortutako emaitzak populazioaren laginetik populazio osoa orokortzeko aukera ematen du.



### 3.1. Inkesta motak

Inkestak sailkatzeko modu desberdinak daude, bere ezaugarri nagusietan oinarrituz. Jarraian, sailkapen horietako bi aurkeztuko ditugu.

Populazioaren estaldura mailaren arabera, bi inkesta modu garrantzitsu bereizten dira:

*Erroldan oinarrituak.*- Populazioko elementu guztiei egiten zaie inkesta. Inkesta mota hauek garestiak izaten dira populazioa handia denean eta datu gutxi jaso ohi dira, erantzun-tasa altuak lortzeko eta normalean laburrak izaten diren datu bilketarako epeetara egokitzeko. Adibidez: Hezkuntza Ministerioak eskola publiko eta pribatuetan egiten dituen inkestak ikasleek aurreikusitako gaitasunak lortu dituzten jakiteko.



*Laginean oinarrituak.*- Populazioaren azpimultzo adierazgarriari egiten zaio inkesta. Populazioaren elementu kopuru handiagatik bere adierazgarria den populazioaren zati bati galdetzea hobe izaten da, laginarekin lortutako emaitzen eta populazio osoari galdetuz lortuko liratekeen emaitzen artean diferentzia txikiak izateko moduan egiten delarik. Adibidez, nerabeen artean alkoholaren kontsumoaren inguruko inkesta.

Inkestaren helburuari dagokionez, inkesta deskribatzaileak eta azaltzaileak edo analitikoak bereizten dira:


*Deskribatzaileak.*- Populazioaren edo populazioaren zati baten informazio deskribatzailea lortzeko helburua dute, hau da, populazioaren ezaugarri edo aldagai baten benetako balioaren inguruko informazio kuantitatibo deskribatzailea lortzekoa. Adibidez, populazio baten aldagai soziodemografikoen inguruko inkesta.

*Azaltzaileak edo analitikoak.*- Populazioaren hainbat ezaugarriren arteko erlazioak aztertzeko helburua dute. Inkesta mota hauetan kontzeptuen eta hauek ordezkatzeko dituzten aldagaien arteko erlazioak zehazten dituzten eredu teorikoak egon ohi dira eta ikertzaileak eredu horiek aztertzen saiatzen dira ikertutako portaerekin erlazionatzeko diren faktoreak hobeto ulertzeko. Adibidez, adina eta estres mailaren arteko erlazioa aztertzeko helburua duen inkesta.



### 3.2. Inkestaren faseak

Inkesta guztiak deskribatzeko balio duen fase multzo zehatz eta ordenaturik ez dago, bakoitzaren ezaugarri bereizgarriek eragiten dutelako fase batzuk ez burutzea edo beste fase batzuk gehiago azpimarratzea. Halere, inkesta guztietan ematen diren oinarriko lau fase edo epe daude: helburua zehaztea, diseinua, datuen bilketa eta inkestaren ustiapena (ikus 1. Irudia).



1. irudia. Inkestaren faseak (Navasen testutik (2001) egokituta)

**1. Helburua zehaztea:** Inkesta bitartez egin beharreko edozein ikerketaren abiapuntua bertan aurkitutako emaitzen ezagutzarekin lortu nahi den helburua definitzea izango da. Horrek eskatuko du kontuan hartzea emaitzak modu batekoak ala bestekoak izatearen arabera zer nolako erabakiak hartuko diren.

**2. Inkestaren diseinua:** Jaso nahi den informazioa zehaztu ondoren, intereseko aldagaiak definitu behar dira. Prozesu honek eskatzen du aldagai horiek operazionalki definitzea, modu argian zehaztu dadin inkestako galdera multzoak jasoko dituen informazio espezifikoa zein diren, datuak jasotzeko erabiliko den prozedura bat ala bestea izanik ere.

Behin inkesta osatuko duten galderen multzoa erabaki denean, forma zehatz bat eman behar zaie multzo koherente eta bateratua izan dadin. Honela, aurkezpen ordena, formatua eta idazkera, erantzun aukerak eta modalitateak kontuan hartu beharko dira. Tresna hitza erabiltzen dugu datuen bilketarako erabiliko den inkestako galdera multzoa jasotzen dituen galdesorta, elkarrizketa, proba, test edo eskalari erreferentzia egiteko.

Populazioa eta laginaren definizioari dagokionez, laginak populazioa modu egokian ordezkatzeko duela bermatu behar da.

Hainbat faktore dira datuak biltzeko sistema aukeratzea baldintzatzen dutenak. Inkestatuen erantzunetan sistemak eragin dezakeen alborapena edo interferentzia, datu fidagarriak biltzeko sistemak duen gaitasuna, inkestarako tresnen aplikazioen kostua eta inkestatuek taldeka inkestatuak izateko duten eskuragarritasuna izan daitezke datuak biltzeko prozedura aukeratzeko arretaz ebaluatu beharrezko funtseko faktoreak.

Populazio handiekin egin beharreko inkestetan ezinbesteko betebeharra izaten da proba pilotua egitea, hots, behin betiko inkestan erabiliko diren prozedura guztien aurreko aplikazioa eskala txikian. Proba pilotuak aukera ematen du laginketa sistema probatzeko, laginketa markoaren fidagarritasuna probatzeko, balizko erantzun tasak estimatzeko, inkestatu beharreko pertsonekin kontaktatzeko zailtasunak kalkulatzeko eta haien lankidetzak ikusteko, inkestatzaileek tresnen aplikazioan izan ditzaketen zailtasunak antzemateko, galderak, erantzun aukerak eta erantzuteko moduak inkestatuentzat egokiak direla probatzeko, eta erantzunen kodifikazio prozesuen eta datuen tratamendu eta analisirako prozeduren saiakera egiteko.

**3. Datuen bilketa:** Modu egokian egin behar da, parte-hartzaile guztientzat inkestaren aplikazioa baldintza berdinetan egin dadin eta, horrela, inkestatzailearengatik edo aplikazio modu desegokiengatik gerta daitezkeen alborapenak saihesteko. Era berean, ziurtatu behar da datuek aurrez zehaztutako epean biltzen direla eta ahalik eta erantzun tasa handienekin eta datuen kalitate hoberekin egiten dela.

**4. Inkestaren ustiapena:** Behin datu gordinak bildu direnean, erantzunen kodifikazio prozesua egin behar da eta, garrantzi txikikoa dirudien arren, datuen grabazio eta egiaztatze prozesuek haien kalitatean eragiten dute. Zenbaitetan datu-basea osatu egin behar izaten da galdutako balioen inputazioak eginez, hau da, zenbait galderetan arrazoi ezberdinengatik galdutako balioen ordezkari jakin batzuk dituen parte-hartzaileak emango zukeen erantzun probabileenarekin ordezkatzeko. Prozesu hauek guztiek datu-base zehatz eta osatua prestatzeko helburua dute eta hau izango da ondoren egingo diren datu-analisen oinarria. Inkesta bidezko ikerketetan erabiltzen diren datu-analisirako prozedurak Gizarte eta Osasun Zientzietan orokorrean erabiltzen diren berberak dira.

Emaitzen aurkezpenari dagokionez, ikerketa txostenek informazio nahikoa eskaini behar dute irakurleek inkesta planteatzeko garrantzia, jasotako datuen baliozkotasuna eta fidagarritasuna, inkestaren ezaugarriei egokitutako analisi estatistikoen erabilpena eta lortutako ondorioen egokitasuna epaitzeko gai izan daitezkeen.

### **3.3. Informazioa biltzeko teknikak: galdesorta eta elkarrizketa**

Datuak jasotzeko prozedura desberdinek inkestatzaile eta inkestatuen artean elkarrekintza maila desberdinak inplikatzen dituzte, inkestaren galderak planteatzeko eta inkestatuen erantzunak jasotzeko garaian. Tradizionalki, elkarrizketa eta galdesorten artean bereiztu izan da informazioa biltzeko oinarriko metodo gisa.


**Galdesorta:** Informazioa jasotzeko galdera kopuru mugatuaz osatutako tresna. Galdesortari emandako erantzunen bidez, pertsonak bere buruaz edo inguruneaz informazioa ematen du. Kontuan hartu beharreko alderdiak galdesortako galderak modu egokian planteatzeko:



1. Galdera garrantzitsuak egitea.
2. Ahalik eta galdera kopuru txikiena egitea.
3. Ahal den heinean, galderak zenbakizko erantzuna eskatuko dute, itxia, bai-ez, aukera anitzekoak,...
4. Galderak zuzenduak dauden populazioarentzat modu erraz eta ulerkorrean idatziak egon behar dute, modu pertsonal eta zuzena erabiliz. Adibidez, *“Gai honen inguruan zure adostasun/desadostasun maila azaldu ...”* erabili, *“Zein da ikuspuntu orokorra ...”* erabili beharrean.
5. Galderak modu neutroa erabiliz egitea komenigarria da. Ez erabili *“Ez da egia...”* motako esamolderik.
6. Ahalik eta modu zehatzenean formulatu behar dira esaldiak, batez ere neurrak unitateak edo denbora tartek baldin badaude. *Hobe da jaiotze data galdetzea adina urte, hilabete eta egunetan baino.*
7. Zergatik galdegaia duten esaldien erabilera saihestea gomendatzen da, hobe da *“Adierazi zure erantzunaren arrazoia”* edo *“Ondoko baieztapenen artean aukera ezazu zure erantzunari ondoen dagokiona ...”*
8. Aurreiritziren bat adieraz dezakeen baieztapenen erabilera saihestea gomendatzen da. *“Gazteek askotan legez kanpoko jokabideak izaten dituztela kontuan hartuta ...”*
9. Galderak baieztapen positibo moduan adierazi behar dira, erantzunaren zentzuaren inguruko zalantzak ez sortzeko. *Saihestu “Ez al zaizu iruditzen....?”*
10. Baietz erantzutera bultzatzen duten galderak saihestea komeni da. *“Ados egongo zara ...?”*
11. Ahal den neurrian ez dira erabiliko diskreziorik gabeko galderak edo memoria ahalegina edo kalkuluak eskatzen dituztenak. *“Zein da zure sexu joera”* edo *“Adierazi ezazu zure adina, urte, hilabete eta egunetan”*.
12. Ideia bat baino gehiago jasotzen dituzten galderak saihestu. *“Batuetan triste sentitzen bazara ere, ikuspuntu optimista izaten al duzu?”*

Galdesortaren barruan galderen ordena garrantzitsua da inkesta arrakastatsua izateko. Bi teknika erabil daitezke:

- **Inbutu sekuentzia:** Galderak gai orokorrenetatik espezifikoenetarantz joko dute. Horrela, lehen galderak jarraian datozenak ez alboratzea espero da.
- **Behetik gora jarritako inbutu sekuentzia:** Galdera espezifikoekin hasi eta galdera orokorrekin ematen zaio bukaera galdesortari. Honek, gai orokorretara jo aurretik, subjektuek beren ideien inguruko gogoeta egitea ahalbidetzen du.



Galdesorten egitura formalari dagokionez, kontuan hartu beharreko alderdiak aipatzen dira jarraian:

- Galdesorta erakargarria eta helburuekiko egokia izan beharko da. Kontuz aukeratuko dira erabiliko den paper mota, letraren tamaina eta mota, inprimatze mota, erantzunarentzako emandako tartea e. a.
- Beharrezkoa da sarrera bat jartzea subjektuari parte hartzeko gonbidapena luzatuz eta parte hartzeagatik eskerrak emanez.
- Ikerketa finantzatu duen erakundea zein den azaldu beharko zaio subjektuari.
- Argi eta garbi azaldu beharko dira galdeketa bete ahal izateko argibideak.
- Erantzuna modu anonimoan tratatuko denaren bermea eman beharko zaio subjektuari.
- Subjektuari dituen kezkek azaltzeko gonbidapena luzatuko zaio galdetzaileak erantzun ditzan.

**Elkarrizketa:** Elkarrizketatzaile batek subjektuari egindako galderen bitartez (gutxiago edo gehiago egituratuak) informazioa lortzeko prozedura. Pertsonen arteko elkarrekintza egoera bat da non elkarrizketa profesional baten bidez informazioa lortzea bilatzen den. Elkarrekintza honek elkarrizketatuaren erantzunen fidagarritasun murrizketa ekar lezake, anonimotasun ezaren eraginez.



Informazioa elkarrizketa egituratuaren bitartez edo egituratu gabeko elkarrizketaren bitartez lortu daiteke. Elkarrizketa egituratua deritzo, galdera multzoa aurrez erabakita dagoenean. Galderak irekiak edo itxiak izan daitezke. Adibidez, “Azken aldian buruko mina izan duzu?” galdera itxia izango litzateke eta “Zein dira gehien errepikatzen zaizkizun pentsamenduak?” galdera irekia izango litzateke. Galdera irekiak erabiltzeak zaildu egiten du emaitzen kodifikazioa eta analisisa, baina hurrengo ikerketetarako iradokizun iturri garrantzitsua izan daiteke.

Beste muturrean egituratu gabeko elkarrizketak izango genituzke. Elkarrizketa hauek, orokorrean, inkesta baten eraikuntzaren aurreko faseetan erabiltzen dira, galderak aurrez zehaztu gabe daudelako. Aztertu beharreko arloen inguruko argibideak soilik daude. Egoera honek eragiten du laginarekin lortutako emaitzen kodifikazioa eta laburpena zaila izatea. Elkarrizketatzailearen funtzioa hemen funtsezkoa bihurtzen da. Izan ere, esperientzia handia duten profesionalak soilik dira gai elkarrizketa mota hauek era egokian erabiltzeko. Adibidez, egituratu gabeko elkarrizketa batean, migrazioari buruzko jarreraren arloa aztertu nahiko bagenu, galde genezake: “Zein iritzi duzu zure herrialdeko politika migratorioari buruz?” eta hor lortutako erantzunaren arabera, galdera berriak egingo genituzke parte-hartzaile bakoitzaren informazio zehatza lortu arte. Beraz, egituratu gabeko elkarrizketen ezaugarri nagusitako bat da galderak ez direla berdinak elkarrizketatu guztientzat, galderak aurreko galderen erantzunen arabera daudelako.

Esan dugu normalean elkarrizketa eta galdesorten artean bereizketa egiten dugula informazioa biltzeko oinarritzko teknika gisa. Halere, garrantzitsua da kontuan hartzea informazio biltzeko teknika hauen aplikazio modua. Honela, adibidez, telefono bidezko elkarrizketak, postaz bidaltzen diren galdesortak edo ordenagailuaz lagundutako galdesorta edo elkarrizketak aurkitu genitzake. Aplikatzeko modu bat ala bestea ikerketaren helburuaren arabera, giza-baliabideen arabera, eta baliabide material eta ekonomikoen arabera egongo da, besteak beste. Jarraian, aplikatzeko modu nagusi batzuen abantailak eta desabantailak ikusiko ditugu.



### Aurrez-aurreko aplikazioa

Aplikatzeko modu honetan, elkarrizketatzailea edo inkestatzailea aurrez-aurre aurkitzen da parte-hartzaileekin.

Abantailak:

- Parte-hartzaileen lankidetzatza errazten du eta konfiantza-harremana sortzen laguntzen du.
- Galderetan sortzen diren zalantzak argitzea ahalbidetzen du, baita argibide konplexuen azalpena ere.
- Datu bilketa prozedura desberdinen erabilpena ahalbidetzen du.
- Erantzun tasa altuak ematen ditu.



Desabantailak:

- Elkarrizketatzailearen alborapena eragiteko aukera dakar, bai galderak egin eta jasotzeko moduagatik eta baita ezaugarri pertsonalen eraginagatik ere (sentsibilitatea, heziketa, e. a.).
- Elkarrizketatzaileen trebakuntza eskatzen du neurketa tresnarekin aztertuko den antzeko populazio batean.
- Kostu handia du (denbora eta dirua).
- Datuak jasoko diren tokietan ondo trebatutako elkarrizketatzaileen beharra izaten da.



### Telefono bidezko aplikazioa



Aurrez-aurreko aplikazioarekin alderatuz aukera ekonomikoagoa da. Erantzun tasa altuagoa izateko gomendagarria da elkarrizketa egin aurretik gutun bat bidaltzea. Elkarrizketaren aurkezpena kontu handiz egin beharra dago. Garrantzitsua da elkarrizketatzailearen eta erakundearen izena adieraztea, eta nondik deitzen ari garen. Horretaz gain argi eta garbi azaldu

beharko dira honako eremu hauek: nola lortu den subjektuaren izena, inkestaren helburua, inkesta egiteko beharko den denbora gutxi-gora-behera eta elkarrizketatuak nahi dituen galderak egiteko duen askatasuna.

Abantailak:

- Aurrez-aurreko elkarrizketek baino kostu murriztagoa dute.
- Eremu geografiko zabalagoak estaltzeko aukera ematen du kostu murriztagoarekin. Aldi berean, iristeko zailak diren populazioetara hurbiltzeko erraztasuna ematen du.
- Laginaren hautapen erraztasuna.
- Elkarrizketatzaile gutxiago behar dira eta trebakuntza gutxiago eskatzen du.
- Elkarrizketatzailearen alborapen arrisku murriztagoa du.
- Zalantzak argitzeko aukera ematen du.
- Erantzun tasa nahiko altua izaten du, naiz eta aurrez-aurreko elkarrizketarena baino murriztagoa izan.



Desabantailak:

- Aukeratutako subjektuekin harremanetan jartzeko arazoak.
- Datu bilketak duen malgutasun murrizta, irudien laguntza eskaintzeko ezintasuna, froga klinikoak egiteko ezintasuna, elkarrizketatuen zenbait erreakzio behatzeko ezintasuna, e. a.



- Parte-hartzaileen aldetik lankidetza maila murriztagoa jasotzen da.
- Gai sentikorretarako desegokia da.



### Posta bidezko aplikazioa

Aukeratutako subjektuei galdesorta postaz bidaltzean datza, erantzuteko argibide argiekin batera.

Abantailak:

- Kostu murrizta.
- Baliabide eta pertsonal gutxirekin antolatu daiteke.
- Elkarrizketatzailearen alborapena saihesten du.
- Anonimo izatearen sentsazioa ematen du.
- Galderak erantzuteko denbora malguagoa eskaintzen du.



Desabantailak:

- Erantzun tasa murriztagoak. Laginaren hilkortasuna.
- Alborapena: Desberdintasunak egon daitezke erantzuten dutenen eta ez dutenen artean.
- Erantzun gabeko galderak egoten dira.
- Galderak eta argibideak sinpleak izan behar dute, erantzuteko garaian inkestatzailea aurrean ez dagoelako zalantzak argitzeko.
- Erantzunetan akatsak egon daitezke, interes falta, galdera nekagarri eta konplexuenei erantzunik eza, e. a.
- Galderei emandako erantzunen ordenarekiko kontrolik eza.
- Ez dago beste pertsonen laguntza eta presentziarekiko kontrolik.
- Galderen aurkezpenaren inguruko mugak: Idatziz eta zenbaki murriztean.
- Ezin dira subjektuen erreakzioak behatu.
- Irakurketa, idazketa, ikusmen, kultura maila, e. a. zailtasunak dituzten pertsonekin arazoak.



### Internet bidezko aplikazioa



Azken urteetan asko handitu da datuak biltzeko online inkestak erabiltzen dituzten ikertzaileen kopurua. Aplikazio ugari daude, doakoak batzuk eta ordaindutakoak beste batzuk, inkestak online egiteko. Gehienak ez dute eskatzen deskargarik eta nahikoa da Interneteko konexioa izatea, erabilpena erraztuz.

Aplikazio hauetako batzuk dira: Doodle, Encuestafacil, Survio, Survey Monkey, Google Drive, Zoho Survey, Typeform, Polldaddy, SurveyPlanet, Eval & Go, E-encuesta.com edo QuestionPro.

Abantailak:

- Kodifikazio erroreak murrizten dira.
- Datuen erregistro automatikoa.
- Kostu murrizta.
- Pertsonal eta baliabide gutxirekin egin daiteke.
- Elkarrizketatzailearen alborapena saihesten du.
- Anonimo izatearen sentsazioa ematen du.
- Galderak erantzuteko denbora malguagoa eskaintzen du.






Desabantailak:

- Laginketaren alborapen eta mugak, denek ez daukatelako internetera konexioa.
- Tresnaren prestakuntza neketsuagoa izan daiteke galdesorta aplikatzeko erabiliko den plataformara egokitu behar delako.
- Konexioan edo ordenagailuan egon daitezkeen arazoek eragin dezakete erantzunak ez iristea.
- Erantzun tasa txikiagoak eta hilkortasun esperimentalak.
- Alborapenak egon daitezke: Erantzuten dutenen eta ez dutenen arteko diferentziak.



Kontuan hartu behar da aplikazio modu bakoitzarekin lotuta aipatu diren abantailak eta desabantailak, erlatiboak direla, faktore askoren menpe daudelako. Adibidez, posta bidez edo internet bidez aplikatzearen abantailak bat anonimo izatearen sententzia da, baina, aplikazio modu horiek erabilita ere, parte-hartzaileei NAN zenbakia, izen-abizenak eta helbidea eskatzen badizkiegu, anonimo izatearen sententzia desagertuko da. Beraz, aipatu diren abantaila eta desabantailak orientazio modura ulertu behar dira.

### 3.4. Inkesta diseinuen sailkapena



#### 2. irudia. Inkesta diseinuen sailkapena.

**1. Zeharkako diseinuak:** Diseinurik sinpleenak dira. Informazioa saio bakar batean jasotzen da, momentu jakin batean eta aurrez zehaztutako populazio batean. Emaitzak momentu eta populazio jakin horretara orokortu daitezke. Denboran zehar egonkor diren aldagaien ikerketarako bereziki egokiak dira. Adibidea: 2017-2018 ikasturtearen bukaeran unibertsitateko irakasleek daukaten estres mailaren autopertzeptzioaren inguruko inkesta egiten da.

**2. Luzerako diseinuak:** Fenomeno jakin bat denboran zehar aztertzen da. Tresna bera edo antzekoa, bi aldiz edo gehiagotan aplikatzen da. Diseinu hauetan ikertzaile, errekurtsio eta subjektuen jarraipenak kostu altua izaten du. Inkesta hauek lagineko parte-hartzaileengan denboran zehar ematen diren aldaketak ebaluatzeko egin daitezke edo populazioan denboran zehar ematen diren aldaketak ebaluatzeko. Hori dela eta, luzerako diseinuen barruan ondoko sailkapena egiten da:

2.1. Panel diseinuak: Denboran zehar parte-hartzaile talde edo panel baten jarraipena egitean datza. Horretarako, bi datu bilketa edo gehiago egiten dira. Beste helburu batzuen artean, garapenari lotutako aldaketak edo gertaeren eragin psikologikoa aztertzeko egokiak dira diseinu hauek. Adibidea: Psikologian graduatu diren ikasleek lan munduan duten txertatze maila aztertzen duen inkesta. UPV/EHU-n Psikologian Graduatutako ikasleen lagina hautatzen da eta bost urtetan zehar jarraipena egiten zaie.

Abantailak:

- Parte-hartzaile berak izanik, kohorte efektuen eragina saihesten da.

Desabantailak:

- Subjektuen historia. Ikerketaren kanpoko gertakizunen emaitzetan eragina izan dezakete.
- Proben administrazioa.- Galdesortak behin baino gehiagotan erantzuten dutenak parte-hartzaile berak izatean, lehenengo aplikazioak hurrengoetan eragina izan dezake.
- Hilkortasun esperimentalak.- Parte-hartzaileen galera eman daiteke datu bilketa batetik hurrengoetara.
- Kostua.- Orokorrean, zeharkako diseinuak baino garestiagoak izaten dira.

2.2. Joera diseinuak (edo populazioenak): Zeharkako diseinuen errepikapena egiten da momentu desberdinetan. Populazioaren lagin baliokideei egiten zaizkie inkestak. Erabilitako teknikak (laginketa, galdesorta, kodifikazioa, ...) baliokideak izan behar dira. Adibidea: Gobernuek hezkuntza maila (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza) bakoitzaren bukaeran ikasleen errendimendua ebaluatzeko eta urtez urte aldaketarik eman den aztertzeko egiten dituzten ohiko inkestak.

Abantaila:

- Ez dago parte-hartzaileen jarraipen, hilkortasun esperimental eta proben administrazio arazorik.

Desabantaila:

- Kohorte efektua: Belaunaldi arteko aldaketek aztertutako aldagaietan eragina izan dezakete.

2.3. Kohorte diseinuak: “Kohorte” terminoak, adin bereko subjektu taldeari edo bizipen bera izan duen subjektu taldeari erreferentzia egiten dio. Kohorte diseinuak kohorte jakin bati jarraipena egiten dio. Kohorte jakin baten lagin baliokideekin egiten da jarraipena. Adibidea: 2005ean jaiotako parte-hartzaileen kohorte baten elikadura ohituren inguruko inkesta egiten da. Ikerketa 2016an hasten dugu, parte-hartzaileek 11 urte dituztenean eta bi urtetik behin kohorte bereko lagina aukeratzen da, 2018an 13 urte dituzte, 2020 urtean 15 urte, ...

2016	2018	2020	2022	2024
A11	A13	A15	A17	A19

*Oharra:* Letrak kohortea identifikatzen du eta letraren ondoan dauden zenbakiek, kohortearen adina.

#### Abantailak:

- Ez dago parte-hartzaileen jarraipen, hilkortasun esperimental eta proben administrazio arazorik.
- Ez dago kohorte efektuaren eraginik.

Kohorte diseinuen artean dago *luzerako kohorte diseinu sekuentziala*. Panel diseinu errepikatuen izena ere jasotzen du. Diseinu mistoa da eta bertan luzerako eta zeharkako estrategiak uztartzen dira. Adibidea: 2001ean, 2003an eta 2005ean jaiotako parte-hartzaileen kohorteetan elikadura ohituren inguruko inkesta egiten da. Bi urtetik behin kohorte bereko lagina aukeratzen da eta kohorte berri bat eransten da. Diseinu honek ematen duen abantaila da kohorte efektuak ebaluatzeko aukera. Hots, kohortearen efektua eta adinaren efektua bereizteko aukera.

2016	2018	2020
		E11
	D11	D13
C11	C13	C15
B13	B15	B17
A15	A17	A19

*Oharra:* Letra bakoitzak kohorte desberdin bat identifikatzen du eta letraren ondoan dauden zenbakiek, kohortearen adina.

#### Bibliografia

- Anguera, M.T., Arnau, J., Ato, M., Martínez, R., Pascual, J. eta Vallejo, G. (1995). *Métodos de investigación en psicología*. Madril: Síntesis. 15. kapitulua.
- Fontes, S., García, C., Garriga, A.J., Pérez-Llantada, M.C. eta Sarriá, E. (Eds.) (2001). *Diseños de investigación en Psicología*. Madrid: UNED. 15. kapitulua.
- Gorostiaga, A. eta Balluerka, N. (2007). *Ikerketa metodoak eta diseinuak Psikologian*. Donostia: Erein. 5. kapitulua.
- Navas M.J. (2001). *Métodos, diseños y técnicas de investigación psicológica*. Madrid: UNED. 10. kapitulua.
- León, O.G. eta Montero, I. (2015). *Métodos de investigación en Psicología y Educación*. Madrid: McGraw Hill. 5. kapitulua
- Rojas Tejada, A.J., Fernández Prados J.S. eta Pérez Meléndez, C. (1998). *Investigar mediante encuestas*. Madril: Síntesis.